



## IRAKURMENA

### 4. Oharrak

Enekok, bere egitekoak gogoratzeko, hozkailuan jarri dituen ohar txoak dituzu azpian.

#### EGITEKOA:

- Irakurri oharrak eta esaldiak. Lotu ohar bakoitza dagokion esaldiarekin. Hiru ohar sobera daude.

#### PROZEDURA:

- Irakurri oharrak eta esaldiak.
- Aukeratu esaldiei dagozkien oharrak eta idatzi oharren letra esaldiaren ondoan.

**A**

*Amari deitu  
zoriontzeko,  
18:00etan.*

**B**

*Larunbatean,  
30ean, Ken  
Zazpiren  
kontzertura.*

**C**

*Berlinerako  
hegazkin-  
txartela  
imprimatu.*

**D**

*Ogia,  
arrautzak  
eta esnea  
erosi.*

**E**

*Zinera  
lagunekin  
ostegunean,  
20:00etan.*

**F**

*Lanera mezu  
elektronikoa  
bidali.*

**G**

*Asteburua  
pasatzeko  
maleta  
prestatu.*

**H**

*Berlineko  
gida-liburua  
erosi.*

**I**

*Hotelean 2 gau  
pasatzeko erreserba  
egin.*

**J**

*Asteartean, Amaiarekin  
korrika egitera.*

| ESALDIA                       | OHARRA |
|-------------------------------|--------|
| Amarekin hitz egin telefonoz. | A      |
| Supermerkatura joan.          |        |
| Kirola egin.                  |        |
| Film bat ikustera joan.       |        |
| Liburu-dendara joan.          |        |
| Lankideei idatzi.             |        |
| Musika entzutera joan.        |        |